



Izenburua: **Andromedan**

Egilea: **Joxean Sagastizabal**

Bilduma: Narratiba, 128

ISBN: 978-84-9109-651-1

Salneurria: 12,00 €

“ANDROMEDAN” nobelaren sorreran hiru izen daude, hiru pertsona: Origenes, Jose Antonio Fortea eta Anjel Lertxundi.

Origenes kristautasunaren Aitetako bat da. Haren tesi nagusiak, “Apokatastasiak” dio kreatutako guztia noizbait Kreatzailearengana bueltatuko dela. Kreaturak, salbuespenik gabe, “etxera” itzuliko badira, Satan bera zeruan ikusiko dugu, eta infernua ezin da betirako izan. Apokatastasia, -goxoa, nire ustez- ez zen nagusitu Elizan, eta ez da nagusi gaur egun.

Jose Antonio Fortea gure garaiko pertsona da, bizi-bizirik dago eta Alcalá de Henaresen lanean. Exorzista da, eta asko idatzi du; bere obra ondo ezagutzen dut, delirio hutsa da, baina oso entrenigarria.

Eta Anjel Lertxundi zergatik aipatzen dudan? Ba Anjelek, aspaldi, “Tristeak kontsolatzeko makina” ipuin liburua idatzi zuelako, eta euskal kulturak, literaturak, tristeak kontsolatzeko makinak behar dituelako. Badira berrogei bat urte euskaraz irakurtzen hasi nintzela eta gauza tristeagorik ez dago; ez naiz kalitateaz ari. Tristura bada nagusi.

Nire nobelatxoan katxondeoa da nagusi. Aingeru eta deabruak, gotzain guztiz desiragarriak...tristeak kontsolatzeko makina txiki bat izan nahi luke.

Joxean Sagastizabal
Donostia, 2020ko abenduak 9